



ENTITATEENTZAKO PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA, LANKIDETZA PROIEKTU PUNTUALEN DEIALDIAREN ESPARRUAN

Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Lege berriak, bere laugarren artikuluan, helburuen artean, berariaz ezartzen du honako hau: "Gizarte zibil antolatuen entitateak –bai Euskadikoak, bai Hegoaldeko herrialde eta lurraldeetakoak– indartzea eta haiei laguntzea, elkartasarea sustatuz gizarte demokratiko, inklusibo, horizontal eta eraldatzaileen sinbolo gisa".

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak ESKUTIK lankidetzaren eta elkartasun politika publikorako esparru dokumentua du, eta haren helburua da, besteak beste, erantsi beharreko hobekuntzak eta egokitzapenak eranstea lankidetzarako foru politika partaidetu, partekatu eta gizarteari irekian.

Esparru horretan, Arabako Foru Aldundiaren elkartasun eta lankidetzaren politika publikoaren helburua beti izan da Arabako elkartasarea indartzen laguntzea eta garapenerako lankidetzara hurbiltzen diren entitate berriei laguntzea. Horregatik guztiagatik, ALHko entitateekin adostuta, Lankidetzaren Proiektu Puntualen Deialdia jarri zen abian, beren ezaugarriengatik edo txikiak izateagatik urte anitzeko proiektuetan lekurik ez daukaten eta/edo beste gizarte eragile batzuentzat lankidetzarako sarbide diren lankidetzaren esku hartzeak babesteko.

Hainbat urtez ezarri ondoren, deialdia finkatuta dago, parte hartze maila handiarekin eta haren bidez garapenerako lankidetzaren funts publikoak eskuratu nahi dituzten entitate berrien gero eta hurbilketa handiagoarekin. Izan ere, entitate horiek beti hornitu izan dira gizarte eraldaketa eta jatorrizko komunitateen babesa bilatzen duten beste eragile batzuen ikuspegiez eta lanaz.

Urrats bat harago emanda, eta entitateen eta haietan parte hartzen dutenen gaitasun teknikoak eta politikoak indartzeko eta handitzeko prozesuak babesteko, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak, Nazioarteko Elkartasuna/Solidaridad Internacional (NESI) entitatearekin batera, prestakuntza eta laguntza bi fasetan emateko prozesu bat jarri du abian, Proiektu Puntualen Deialdian jada parte hartzen duten edo parte hartzeko interesa duten entitateei zuzendua.

Helburu nagusia GKE txikien eta/edo lankidetzarako eragile ez-tradizionalen gaitasunak indartzea, bai eta migratuen elkarleen ere, proiektuak formulatu, aurkeztu eta haien jarraipena egiteko Arabako Foru Aldundiaren Lankidetzaren Proiektu Puntualen Deialdian.



1. FASEA – PRESTAKUNTZA

Lehenengo fasean, prestakuntzako bi sarrera saio aurreikusten dira. Saio horietan, modu teoriko-praktikoan, lehenengo eta behin, garapenerako lankidetzara eta proiektuetara hurbilduko gara, hura ezartzeko tresna gisa. Bigarrenik, Proiektu Puntualen Deialdia bera eta haren araudia aztertuko dira (administrazio elektronikoa, betekizunak, baremazioa, formularioa...).

- **LEKUA: IGNACIO ALDECOA KULTURA ETXEA**
- **Urriak 2, osteguna, 17:00 – 20:00 (Ipizte aretoa)**
- **Urriak 9, osteguna, 17:00 – 20:00 (Amaritu aretoa)**

2. FASEA - LAGUNTZEA

Ondoren, BIGARREN FASEan, laguntza prozesu bat garatuko da lehenengo fasean parte hartu izanik laguntza prozesu batean parte hartu nahi duten entitateekin, helburu hauekin, besteak beste: garapenerako lankidetzara proiektu baten oinarrizko edukiak garatzea (testuingurua, justifikazioa, jarduerak, kronograma eta aurrekontua), tokiko bazkide bat identifikatzea eta jarduketara estrategia bat adostea, proposamenetan genero ikuspegia txertatzea eta/edo ekintza puntualen deialdiaren eskaeren balioespen irizpideak kontuan hartzea proiektua diseinatzerakoan.

Bigarren fase hori, zeina asteko saioetan gauzatuko baita, entitate parte hartzaileekin zehaztuko da, eta 2025. urteko azken hiruhilekoan garatzea aurreikusten da.

Mezu honen bidez, prozesuan parte hartzera eta berretsitako lehenengo bi datak gordetzera animatzen zaituztegu.

Edozein argibide, zalantza edo iradokizun behar izanez gero, jar zaitezte gurekin harremanetan. Behar izanez gero, badago itzulpenarako aukera.

Saioak aurrez aurre egingo dira. Beharrezkoa da izena ematea, eta irailaren 19ra arte dago horretarako aukera, helbide honetan:

lankidetzairekia@araba.eus

Zuen zain egongo gara

Adeitasunez, agur

Joana del Hoyo Fernández
Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria
Directora de Igualdad y Derechos Humanos